

## Zuzendariari

**BERRIAK** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 2.500 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugaldel kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info).

## Xabier Leteren oroiminez

Milaka lagunek osteguneari Arantzazuko elizan sentitu genuena ezin dut adierazi. Xabier Leteren bera beharko genuke nostalgialaren edertasunari hitzak ipintzeko.

Espazio eder hura musika eta hitzez bete zen, airean Leteren hitzak, kantarien doinuak eta gure barneko sentimenduak elkartzuta, hizkuntza eta musikarekin lotuta.

Eskerrik asko horren ordu hunkigarriak pasatzea eragin zenigutenoi: Pier

Paul Berzaitz, Antton Valverde, Amaia Zubiria, Petti, Erramun Martikorena, Joxan Artze, Karlos Jimenez, Joxan Goikoetxea, Txema Garces, Xanet Arozena, Francisco Herrero, Luis Fernandez, Noel Elonga eta, nola ez, Joseanjel Arbelaitzi. **Arantzazu Arregi**. Donostia.

## Oker dabil Rubalcaba

Ulertu du, baina oker dabil. Alde batetik, proposatzen digu Madrigo estatuaren mende jarraitu ala estatu propioa eraiki nahi dugun erabakitzea, eta bestetik,

espainiarren Konstituzioa derrigorrez betetzea exijitzen digu.

Oker dabil, ordea. 1978ko Espainiako Konstituzioak ez du ezer esaten herrien borondatea errespetatzeari buruz, ezta nazioak independentziara iristeko eta estatu propioa eraikitzeko ahalmenari buruz ere. Nazioarteko legediak, ordea, bai.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak onartu egin izan ditu alde bakarreko independentzia aldarriak eta bereizteak. «Nazioarteko legediak ez ditu halako aldarrikapenak debekatzen»,

esan zuten epaileek Kosovoren independentziaren auzian. Zergatik ez dute epai bera emango, bada, gure kasuan?

**Befi Agirre**. Hernani.

## Anarkokristauen arrazoia

Laburra izango naiz. Jakina da nola meza santuan eta otoitzetan Jauna eta Jauna behin eta berriz errepikatzen dela denen buru, eta egia da Jesus Jauna dela, baina Jesusen bazuen behin honako hauxe esan: Jauna, Jauna, esaten duen oro ez da sartuko Zeruetako Erresuman, baizik eta nire Aitarena nahia betetzen duen oro. Hori da, ona izanik nahikoa da zeruzatze, hori baita Aita Zeruetakoaren nahi santua.

**Roman Garmendia**. Donostia.

# Norvegiako sarraskia eta gorrotoaren diskurtsoa

## Jon Mirena Landa

EHUko Zigor Zuzenbideko irakaslea

**B**reivik ez zen terroristar talde bateko kidea; bakarrik jardun zuen, inongo antolakunde kriminalen laguntza barik. Talde oso baten faltan, egindako sarraskiaren zergatiak, hasiera batean, ez ziren argiak, eta nora ezean zebiltzan komunikabide eta politikariak. Ez zegoen muturreko musulman talde baten erantzukizunik; ezta inongo talde terroristaren ekintzarik ere, dela nazioarteko, dela barneko. Horien ezean, azkenaldiko ohiko azalpenak ez ziren egokiak, beste batzuk bilatu behar ziren.

Breiviken egoera psikologikoa, hortaz, begi publikoaren jarri zen; izan ere, hotz-hotzean hain beste jende hiltzeko eta hain zuzen ere dena zehatz-mehatz antolatutako edukita, gizon hark hableharrez burutik eginda egon behar omen baitzuen. Baina psikiatra forentseak diotenaren zain, ez dirudi jazotakoaren azalpena psikiatriko hutsa besterik ez denik. Orduan nola liteke hau non eta Norvegia lasai eta tolerantean gertatzea?

Apurka azalazteratzen ari den eztabaida eta azalpena gorroto diskurtsoa oso zabalik eta mugagabe gure gizarte europarretan egotearena da. Webgune ugari dira etengabe etorkinen kontrako mezuak sakabanatzen ari direnak, indarkeria, diskriminazio edota gorrotorako deia eginez. Webguneek ez ezik, telebista ka-

te jakin batzuek edota politikari batzuen diskurtsoek ere —eskuin muturrekoek, baina baita hain muturrekoak ez direnek ere— horretan gero eta ozenago eta oldarkorrago barneko nazional eta kanpotarren arteko ezberdintasunak asmo txarrez azpimarratzen dituzte. Neonazien propagandatik, muturrean, etorkinei ez esateko modu «zibilizatueta» (atzerritartasun legegaren eztabaida) kolore askotako diskurtsoak nagusitzen ari dira, giza-talde ezberdinen arteko berezitasunak «harresi» bihurtu nahi dituztenak, eskubideen berdintasuna auzitan jarriz.

Frantziar, Herbehereetan, Katalunian, adibidez, eskuin muturrea ordezkari politikoa irabazten ari da nabarmen. Beste lekuetan, ordea, eskuinak barnean mantentzen ditu muturrak horiekiko keinuak egitearen bidez, botoak galtzeko beldur.

Gorroto diskurtsoa ez da berria. Ezta horien inguruan antolatutako dauden taldeak ere. Horren froga 1965ean Arrazakeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Nazioarteko Ituna onartu izana dugu, beste neurrien artean, gorroto, indarkeria edota bereizkeriaren probokazioak delitua izan behar zuela aldarrikatzen zuelarik. Ituna arinetan onartu zen horietako bat dugu, 1960an Alemaniaren neonazien pintadak Kolonian azaldu ondoren. Herrialde germaniarrek nazioarteko komunitatearen aurrean zaindu behar zuten irudia zela-eta, Ituna buruz eta bost urteko denbora errekorrean onartutik zegoen. Harrez geroztik 160 Estatu baino gehiagok berretsi dute Ituna,

eta hura arrazakeria eta xenofobiaren aurka borroka egiteko tresna nagusia bilakatu da. Horren ondorioz, gaur egun Europa osoan zehar bai genozidioaren apologia baita diskriminaziorako probokazioaren debekua ere ordenamendu penaletan dago.

Berandu bada ere, Espainiak ere xedapen penal horiek sortu zituen lehen aldiz 1995ean. Egun indarrean dagoen Zigor Kodean bat eta hiru urte bitarteko kartzela zigorrez daude aurreikusita (510 eta 607.2 art.). Xedapenak sortu bai, baina aplikatu al ditu Justizia Administrazioak? Lege penalak ezin du bere funtzioa bete, egunerokotasunean, xenofobia kasuen aurrean legea ezartzen ez bada. Horretarako bai politikari, bai fiskalari, bai epaileek delitu horien berri eta horien seiratasunaren kontzientzia eduki behar dute. Horien guztien esku baitago delituen pertsekuzioa. Bestela esanda: xenofobia serio hartua izan al da lege ezarpen egoki eta eragingarriaren bitartez? Erantzuna ezin da argiagotzea: ez. Eta hori ez da nire iritzia soila: ikus ditzagun datu batzuk.

1995etik aurrera diskriminazio, gorroto edota indarkeriaren probokazio delitua ere ez daude hiru kondena irmo baino gehiago. Hiru! Horietako bat Fuengirolako Imam baten kasu entzutetsua izan zen, andreak nola jo zioenari buruz idatzi zuena. Kasu horietatik al, adibidez, propaganda xenofoboaren kasurik argienak, Bartzelonako liburu denda batzuenak alegia, denak Auzitegi Gorenak absolutu dituen neurri batean edo bestean, azken urda baino lehenagoko Kalki

izenekoarena. Kondenak zein absolutzioak, denak batera zentzurik, ez dira dozena pare batetik pasako, Justizia Administrazioak gorroto propagandarekin lotuta aztertu dituen kasuak. Hori guztia 15 urtetan!

Konparaketak beti gorrotagarriak dira, baina neonazi, espainiar talde ultraeskuindar edota beste talde muturrekoen apologien pertsekuzioa penala ETAREN terrorismoaren pertsekuzioarekin konparatuko bagenu, bai zenbakien aldetik baita grina eta

gaiari heltzeko moduaren ikuspegitik ere alde ikaragarria izango litzateke. Zergatik, esaterako, *Skin Head* edo eskuin muturreko talde antolatuen kasuetan ez dira aplikatzen Auzitegi Nazionala eta horrekin lotzen den salbuespen moduko neurriak? Ez naiz salbuespen neurrien aldekoa, baina azpimarratu nahi dudana zera da: Estatuak terrorismo mota jakin bat izan du lehen tasuna, eta eskuin muturrek ez da askorik arduratu. Europan, 2001etik aurrera, antzera gertatu da, terrorismo mota jakin baten aurkako politika zatikatua —*ad hoc*— bultzatuz. Agian bada garaia irizpide orokorrak aplikatzen hasi eta antolatutako talde kriminal guztien aurreko estrategia bateratzeko. Agian bada garaia gorroto diskurtso guztiak berdin tratatzeko, ez Estatuari interes nazionalak direla-eta komeni zaiola. Izan ere, gehiegitan gertatzen baita eskuin muturreko taldeak Estatuak ideologia aber-zaletik hurbil daudenean, beste leku batera begiratzeko joera dagoela. Hori guztia bateratuko bagenu, batetik, ziurrenik ez ginateke tresna penalariekin hain urrun joango funtsezko eskubiak murrizterakoan, eta, bestetik, Estatuak gehiago kostatuko litzateke delituen pertsekuzioa eta joko politiko itsua bezain maltzurra uztartzea, antolatutako talde kriminalen ideologia ez baizik eta beraien jardueraren kriminal hutsa erdigunean jarriz. Gorroto-diskurtsoaren aurkako borroka bai, baina gorroto guztien aurkako berdintasun printzipioari helduta.

Estatuak terrorismo mota jakin bat izan du lehen tasuna, eta eskuin muturrek ez da askorik arduratu. Europan, 2001etik aurrera, antzera gertatu da, terrorismo mota jakin baten aurkako politika zatikatua —*ad hoc*— bultzatuz